

3. MAHASGINTZA ETA ENOLOGIA BOLETINA / 2021eko EKAINA. IZURRITE ETA GAIXOTASUNAK

- **Internet bidezko asteroko oharrak:**
http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=5505&Idioma=EU
- **Erantzungailu automatikoaren bidezko asteroko oharrak (Maiatzaren lehen astetik aurrera): 944066879**
- **Mahasgintza eta enologia boletina**
- **SMS mezuak egoera berezietarako (gorrinaren lehen mailako infekzioa, lehen orbanaren topaketa, txingorra...)**

Oraingo egoera fenologikoetan kontutan hartu beharko dira honako patogeno hauek:

GORRINA: aurten lehenengo olio orbanak maiatzaren erdialdean ta harrezkero ta ekainaren 16an gagozelarik, bigarren mailako infekzioak ikusi izan dira mahastietan baina ez larriak, inolaz ere ihaz bezain bortitzak baina **ADI EGON** une honetan Hondarrabi Zuri bariedadea leku gehienetan loraketa amaitzen da, ta hurrengo egunetarako euriak ta tenperatura epel-altuak dagoz iragarrita dagoz. Holan dala **arreta berezia mantendu behar da, mordoak eta orriak babestu, kalteak sasoi horretan oso altuak izan leitezke batez be eguraldia, izango dan lez, aproposa bada.**

Kontrola: **lora aletu arte** landaketak produktu sistemikoekin babestuta eukitea komeni da kimuak oso azkar hazten direlako. Erabili 2021eko Tratamendu Gidako **M1 taldeko fungizida sistemikoak**. Produktu hauek eraginkortasun handia dute, baina onddoak erresistentziak sortzeko erraztasun handia deko eta horregatik famili desbardineta gai eragingarriak txandakatzea funtsezkoa da. Produktu sistemiko hauek 2-4 egunetan onddoa gelditzeko edo “stopante” izateko gaitasuna daukie behin infekzioa gauzatu dala. Dana dala, prebentiboki erabiltzen badira beraien eraginkortasuna altuagoa da. Produktu hauen persistentzia 12 egun ingurukoa da baina gaixotasunaren presioa oso altua eta landarearen hazkundera oso gogorra bada tratamenduen arteko tartea 2 egunetan murriztu beharko da.

Loraketa osteko egoera fenologikoetan 2021eko Tratamendu Gidako **M2 taldeko fungizida sarkorrek** erabiltzea gomendatzen da. Produktu hauek 2 egunetan onddoa gelditzeko edo “stopante” izateko gaitasuna dute behin infekzioa gauzatu dala, dana dan, prebentiboki erabiltzen badira beraien eraginkortasuna altuagoa izan daiteke. Produktu hauen persistentzia 10-12 egun ingurukoa da, baina gaixotasunaren presioa oso altua eta landarearen hazkundera oso handia bada tratamenduen arteko tartea 2 egunetan murriztu beharko da.

BOTRITISA: oso garrantzitsua da **loraketa-aletze inguruan (I-J egoera fenologikoak) mordoak babestuta izatea, batez be, eguraldia euritsua bada.** Erabili 2021eko Tratamendu Gidako B taldeko botritisaren kontrako fungizidak.

OIDIOA: loraketan, batez be beste urte batzutan arazoak izan dabezan landaketetan oso interesgarria da **oidioaren kontrako fungizida** botatzea mildiuren kontrako tratamendua aprobetxatuz. Aurrerantzean be ta enberoarte tratamenduak barriztu 2021eko Tratamendu Gidako **O taldeko oidioaren kontrako fungizidak erabiliz.**

MORDOAREN SITSA (*Lobesia botrana*): gure mahastietan ez dago arazo handirik insekto honegaz lehenengo hegalaldian, nahiz eta harrapaketak handiak izan. ADI EGON, mahastia aztertu eta tratamendua egin, bakarrik, loretan edo mordoetan larbak ikusten badira.

ARMIARMA HORIA (*Eotetranychus carpini*) eta ARMIARMA GORRIA (*Panonychus ulmi*). Landaketa batzuetan izurritearen sintomak ikusi izan dira. Behar izanez gero, besteak beste akarizida hauexek erabiltzea gomendatzen dira:
Flash UM (%5 fenpiroximatoa): larbak, ninfak ta helduak kontrolaten dauz
Apolo (Clofentezina %50) arrautzak ta larba jaio barriak kontrolaten dauz
Borneo (Etoxazola %11): arrautzak, larbak ta ninfak kontrolaten dauz baina ez helduak
Batzuetan nahaztu beharko dira bi kontrolateko forma guztiak (arrautza, larba, ninfa eta heldua).
Akariziden kasuan be gai aktibo ezberdinak tartekatzearena garrantzitsua da.

LANDAKETA LANAK. **Udako kimaketa:** “hijueloak” kentzea, adar zupatzaileak kentzea eta kimen bakanketa.

LANDAREAREN ORGANUAK ONDO BUSTI BEHARKO DIRA MAKINERIA EGOKIA ETA ONDO KALIBRATUA ERABILIZ. TRATAMENDUA EGITERAKOAN GOGORATU ERABILTZEN DOGUN SALDA KOPURUA MAHASTIAN DOGUN LANDARETZAGAZ BAT ETORRI BEHAR DALA.